

ABUZTUAK 28 ETA 29

K.8 IKASTAROA: HIRIEN ESTRATEGIA XXI. MENDEAN: “Esperientzien azterketa, erronka berriak”

Zuzendaria:

Alfonso MARTINEZ CEARRA Jauna

Bilbao Metropoli-30. Bilbo

Kepa KORTA MURUA Jauna

Donostiako Plan Estrategikoa. Donostia

Helburuak:

Lurraldeko Planifikazio Estrategikoan 20 urte luzeko esperientziak, Planifikazio Estrategikoan arrakasta izan duten ereduengatik gogoeta egitea ahalbidetzen du, praktika bikainak identifikatu eta XXI. mendeko ereduak diseinatzeko saiatuz.

Ikastaroak Planifikazio Estrategikoaren kontzeptuak izan duen garapena aztertuko du eta honekin batera, lurralde eraldaketak, aldaketa sozial eta ekonomikoak eta lurralde eta hirien artean, metodologia honen aplikazioan egin diren egokitzapen ezberdinak. Era berean, ikuspuntu sozial, nahiz ekonomikotik aldaketa global sakonen garai honetan, tokiko eskalan hirien aldaketak jorrazteko tresna egokiak ezagutzeko aukera da gainera.

Hirien eta hauen plan estrategikoen esperientzia ezberdinetan zehar ibilbide bat eginez, ikastaroak lurraldeko planifikazio estrategikoetan sakontzea du helburu, planifikazio kontzeptutik, edo azpiko ikuspegi politikoetik abiatuta, erabilitako tresna metodologikoa zehatzak edo hauen “aplikagarritasuna”, ezarpen maila edo emaitzak aztertuta.

Era berean, aspektu metodologikoen eta izaera operatiboagoa dutenetan indar berezia egingo da, prospektibaren aplikazioa, geobistaraztea, lurralde planifikazio interaktiboa etab.

XXI. mendeko planifikazio estrategikoan eta bere ereduaren aurrera egitea da helburua, erronka berri eta alternatiba berriekin, gure hirien etorkizuna pentsatu, diseinatu eta eraikitzearen garaiak. Hau lortzeko, ezinbestekoak dira planifikazio estrategikoa, antolakuntza ikasketa, gobernantzaren printzipioa, balorea, berrikuntza eta sormenaren garrantzia, harreman sistema eta hirien eta beren inguruneen garapen eta promozioaren arteko harreman estua.

Azken finean, azken bi hamarkadetan izandako esperientziatik abiatuta, bigarren belaunaldiko planak diseinatzeko proposamenak jorrazteko garaia heldu da, harremanen kudeaketa, edo gobernantzaren sakonduz, plan estrategikoen funtzionamendu onaren ardatz diren heinean. Edo ez-materialen eta baloreen garrantzia, sareena, hauek formalak edo informalak izanik eta abar.

Matrikularen prezioa: maiatzak 31era arte: 50 €. Ekainak 1etik aurrera: 60€

Balio akademikoa: 20 ordu.

Hizkuntza ofiziala: gaztelera

PROGRAMA

ABUZTUAK 28

- 9:00 h Dokumentazioaren banaketa
- 9:15 h “Lurralde garapenaren teoriak eta politikak”
ANTONIO VAZQUEZ BARQUERO Jauna
Madrilgo Unibertsitate Autonomoa. Madril.
- 10:30 h Atsedena
- 10:45h “Bigarren belaunaldiko Plan Estrategikoak”
ORIOLESTELA BARNET Jauna
Bartzelonako Foru Aldundia. Bartzelona
- 12:00 h Atsedena
- 12:15h “Etorkizuna igartzen: prospektibaren aukera eta beharren inguruko gogoeta filosofikoa”
DANIEL INNERARITY Jauna
Zaragozako Unibertsitatea. Zaragoza
- 13:30 h Sintesi sesioa

ABUZTUAK 29

- 9:15 h “Hirien nazioartekotzean irekieraren papera”
PETER FINNEGAN Jauna
Dublín City Council. Dublin
- 10:30 h Atsedena
- 10:45 h “Hirien estrategia eta harremanen kudeaketa”
JOSEPPASCUAL Jauna
Hiri kalitateko estrategiak. Bartzelona.
- 12:00 h Atsedena
- 12:15 h Mahai ingurua: “Gertakizun handien estrategia”

FELIX ASÍN SAÑUDO Jauna
Zaragozako Udala. Zaragoza
ALFONSO MARTINEZ CEARRA Jauna
Bilbao Metropoli-30. Bilbo.
KEPA KORTA MURUA Jauna
Donostiako Plan Estrategikoa. Donostia
- 13:30 h Sintesi sesioa

ARGIBIDEAK ETA IZEN EMATEA
Ikastaroen Idazkaritza